

# Hamaika Txillardegi, bakarrean

Gaur bost urte dira Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegi' politikari, idazle eta hizkuntzalari hil zela • Ekitaldiak antolatatu ditu Txillardegi Liburutegia kultur egitasmoak

## Ainhoa Larrabe Amatz

*Txillardeg*i asko gordetzen ditu Jose Luis Alvarez Enparantzak. Pentsalaria eta ekintzailea, eta, batez ere, aitzindaria izan zen Txillardegi. Mugarriz izan zen Euskal Herriko politikan, hizkuntzalari-tzan eta literaturan. Eta itzal luzea utzi du haren lanak. Joxe Azurmendi pentsalariak hala marraztu zuen Txillardegiren lana: «Bilatzaile baten historia delako bilakatu da, Txillardegirena, gure historia. Txillardegi ez da azken urteotako Txillardegi bakarrik. Haren hastapenak dira gureak. Gero, Txillardegi diferente asko dabil Txillardegiren barruan: matematikaria, filosofoa, politikaria, poeta, linguista, mistikoa, literatura eta eremuotako bakoitzean –militantea, zientzialaria, adiskidea, etsaia– Txillardegi diferenteak berriro». Gaur bost urte dira Donostian hil zela, 82 urte zituela. Eta hainbat ekitaldi antolatatu ditu Txillardegi Liburutegia kultur egitasmoak urteurrenaren harira.

Txillardegik utzitako emaria ezagutzera ematea da ekitaldien helburua. Fito Rodriguez EHUko irakasle eta kultur egitasmoak kidearen arabera. Atzo egin zuten lehen saioa. *Txillardeg*i gogoan bideoaren aurrenealdia erekin. Esku artean duten *Txillardegiren egunkari ezkutua* dokumental egitasmoaren lehen urratsa da atzo erakutsitako bideoa: aurre-rapen bat. Azaldu duenez, aurretik bukatuko dute Txillardegiren lana ezagutaraztea helburu duen behin betiko ikus-entzunezkoa. «Oraindik ere ez da haren lana behar bezala ezagutzen, eta hori zabaltzen lagunduko digu dokumentalak».

Hitz bakarria erabili du Rodriguezek Txillardegiz aritzeko: «Polimata». Zehaztasunak eman ditu gero. «Arlo asko sakonki ezagutzen zituen pertsona da, eta

beharrezkoak dira paradigma aldatetako sortzeko». Txillardegi izango litzateke XX. mendeko Euskal Herriaren Errenazimentuko Galileo Galilei edo Aro Modernoko Isaac Newton, Rodriguezen arabera. «Paradigma berri bat planteatu zuen euskal mundua ulertzeko. Tradizioarekin erabat hautsi zuen hizkuntzalari-tzan, kulturgintzan eta politikagintzan. Eremu askotan izan da aitzindaria».

## Aitortza helburu

Ondarea da Txillardegi, Rodriguezen arabera. «Herri ikuspegitik, denon ondarea da. Eta euskal kulturaren eremutik aldarrikatu egin behar da hori». Immateriala den ondare hori material bihurtu nahi dute Txillardegi Liburutegia kultur egitasmoak kideek. Donostiako liburutegi nagusiari *Txillardegi Liburutegia* izena jartzeko eskaera egin du elkarteak azken urteetan. Pentsalaria zendu zuen urte berean egin zuten eskerra Donostiako Udalean estreina-koz. Baina ezekko botoa eman zu-



**Txillardegik paradigma berri bat planteatu zuen euskal mundua ulertzeko. Erabat hautsi zuen tradizioarekin»**

**«Herri ikuspegitik, denon ondarea da Txillardegi. Eta euskal kulturaren eremutik aldarrikatu egin behar da»**

## Fito Rodriguez

Txillardegi Liburutegia kultur egitasmoak kidea

ten PPK eta EAJK, eta gauza bera eskatuko dute bosgarren urteurrena baliatuz. Atxikimenduak biltzen aritu dira azken hilabeteetan, eta bihar liburutegian bertan elkarteak egingo duen ekitaldian ere aldarrikapen hori izango dute ardatz. «Euskalgintzan ezagunak



Txillardegi omentzeko ekitaldiak egingo dituzte Donostian. JON URBE / ARP

izan diren Karlos Santamaria eta Koldo Mitxelena, adibidez, hiri-buruko paisaian txertatuta daude. Eta Txillardegiri oraindik ez zaio tokirik eman. Paisaia linguistikokoan islatzen ez bada, ahaztu egiten du jendeak». Musikak ere tokia izango du biharko ekitaldian. Pianoa jotzen zuen Txillardegik, eta pentsalariak jotako instrumentuaren notekin batera irakurriko dituzte hark utzitako testuak.

Datorren astean solasaldia eskainiko du Rodriguezek berak EHUko Filosofia fakultatean. «Ikuspegi filosofiko baretetik landuko dugu bere lana. Existenzialismotik

estrukturalismora eta generatibismora egin zuen jauzia aztertuko dugu, baita hizkuntzaren filosofia ere. Identitatearen defentsatik, ikuspegi unibertsalera nola pasa zen aztertuko dugu». Otsailaren 10ean egingo dute Txillardegiren heriotzaren bosgarren

urteurrena omentzeko azken saioa, Martin Anso idazleak eta Markos Zapiain filosofoak. «Gizaki eta animalien harremanak zeintzuk diren eta zeintzuk izan behar diren ere aztertu zuen Txillardegik. Gai hori izango dute ardatz».

## Eremu askotan aitzindari

Euskara eta Euskal Herria izan zituen ardatz Txillardegik bere ibilbide osoan. 1929ko irailaren 27an jaio zen Antigua auzoan, eta etxekoek euskaraz jakin arren, ez zioten erakutsi. Bere kabuz ikasi zuen, eta pixkanaka hartu zuen Euskal Herriaren egoera orokorrari buruzko kontzientzia. Gero, Txillardegik berak aitortu zuen euskarak eraman zuela abertzaletasunera. Ezbairik gabe, euskara batuaren alde egindako lana da, merezimenduen artean aipatuena, Rodriguezen arabera. «Euskara estandarren alde egin zuen. Etorkezunerako hizkuntza baten alde, alegia». Euskal Herriaren Euskaraz taldearen sortzailea ere izan zen Txillardegi.

## EKITALDIK

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Txillardegi Liburutegia kultur egitasmoak Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-ren heriotzaren bosgarren urteurrena oroitzeko.

### Bihar, 11:30ean

**Ekitaldi literarioa.** Ekitaldi literario musikala egingo dute Rafa Egi-guren eta Dorleta Urretabizkaik Lasala plazan. Argazki jartzea eta kantu saioa egingo da ondoren, Donostiako udal liburutegian.

### Urtarrilaren 18an, 15:30ean

**Mintegia.** Existenzialismoari buruzko solasaldia eskainiko du Fito Rodriguez EHUko irakasleak, EHUko Filosofia fakultatean.

### Otsailaren 10ean, 18:30ean

**Solasaldia.** Eguzki taldeak antolatu-ta *Txillardeg*i ekologista eta animaliazalea solasaldia eskainiko dute Markos Zapiain eta Martin Anso. San Jeronimo kaleko kriptan.

Gauza bera kulturgintzan. «Literaturaren iraultza egin zuen». 29 urte zituela idatzi zuen euskarazko lehen nobela modernotzat jotzen den *Leturiaren egunkari ezkutua*. Ferrolen soldadu zegoela (Galizia). Sei nobela gehiago idatzi zituen gerora. Tarlean, *Elsa Schelen* (1969) aipatu du EHUko irakasleak. «Emakume dibortziatua da protagonista. Lan egin eta drogak hartzen dituen, eta Belgikan kokatzen du lana. Hori guztia 60ko hamarkadan: hasieratik taldea egiten du euskal mundua ulertzeko ohikoa zen moduarekin».

Berdi politikan. «Menpekotasunaz oharu eta burujabetza aldarrikatu zuen, abertzaletasun tradizionalarekin hautsiz». 1952. urtean Ekin talde politikoa sortu zuen Txillardegik unibertsitateko beste lagun batzuekin batera, geroago ETA bihurtuko zena. ETA-ren kultura adarrean jardun zuen Txillardegik; harik eta 1967an erakundea utzi zuen arte. Herri Batasunaren sorreran parte hartu zuen 1980ko hamarkadan, eta bi legegalditan aritu zen senatari. Bide armatua amaítuta zegoela irizitza sortu berria zen Aralar alderdian militatu zuen; baina gutxira utzi zuen alderdia. 2008an EAE-ANV alderdiko kideekin batera agertu zen hedabideen aurrean, Espainiako haitesungeetarako hautagai zerrenda erregestrotan aurkezttera joan zirenean. Txillardegi asko ditu Txillardegik. Eta guztiak aztertzea beharrezkotzat jo du Rodriguezek.